f) Sailari atxikitako edo Sailaren menpeko Ihardutze-Erakunde Burujabeak eta Herri-Baltzuak arteztea, Lege eta Araudien arabera.

g) Legeek eta Araudiek ematen dizkioten gainontzeko aginte guztiak.

GEHIGARRIZKO ERABAKIA

Gaurregungo Araudi organikoak, Dekretu honek ezartzen dituen sail-egiturei eta honek dakartzan ekintza-arloei egokituko zaizkie hiru hilabeteko epearen barruan.

INDARGABETZE ERABAKIA

Egiteko eta ekintza-arloak zehazten dituen urtarrilaren 27ko 5/85 Dekretua eta Dekretu honek ezartzen duenaren maila bereko edo beheragoko Erabaki guztiak indargabetuta gelditzen dira.

AZKEN ERABAKIA

Dekretu hau, Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitara dadin egun berean, jarriko da indarrean.

Gasteiz, 1987.eko Martxoak 11.

Lehendakaria,

JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

f) Dirigir, de acuerdo con las Leyes y los Reglamentos, los Organismos Autónomos y las Sociedades Públicas adscritos o dependientes del Departamento.

g) Las demás facultades que le atribuyan las Leyes y los Reglamentos.

DISPOSICION ADICIONAL

En el plazo de tres meses se procederá a adecuar los actuales Reglamentos orgánicos a la estructura departamental y consecuentes áreas de actuación establecidas en el presente Decreto.

DISPOSICION DEROGATORIA

Queda derogado el Decreto 5/85, de 27 de enero, sobre determinación de funciones y áreas de actuación, así como cuantas Disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo establecido en el presente Decreto.

DISPOSICION FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 11 de Marzo de 1987.

El Lehendakari,

JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

**505**

Martxoaren 11ko 28/1987 DEKRETOA, Jaurlaritzako Lehendakaritzaren Idazkaritza sortzezkoa.

Jaurlaritzari buruzko Ekainaren 30eko 7/1981 Legearen arauera Lehendakariari dagozkion egitekoak betetzeak, eta Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomia Garapen Saila, berezko egitekoak betetzen dituen eta ez Lehendakariaren laguntzarako ordezko gisako egitekoak betetzen dituen Arduralaritzako ihardutze-sail izateak, baita Sailen arteko egitasmoak eta egitarauak koordinatzeko zenbait Idazkaritza espezifiko egoteak ere Sail horri ematen dion berezkotasunaren ondorioz, aholkugarri gertatzen da Jaurlaritzaren Lehendakaritzaren menpeko diren ihardutze-sail guztien goren-artezkaritza egin dezan ihardutze-sail bat sortaraztea; hori, Sailburuek eta Arduralaritzako Goren-Kargudunek berenez dituzten ahalmenen kaltetan gabe.

Horren ondorioz, Jaurlaritzari buruzko Ekainaren 30eko 7/1981 Legeak ematen dizkidan agintepideez baliatuz, honako hau

ERABAKITZEN DUT:

*Lehenengo Atala.*– 1.– Lehendakariaren artezko menpekotasunez eta berari laguntzeko ihardutze-sail izateko, Jaurlaritzaren Lehendakaritzaren Idazkaritza sortarazten da.

2. Jaurlaritzaren Lehendakaritzari laguntzeko ihardutze-sail guztiak, egituraz nahiz ihardutzez, Idazkaritzaren menpe egongo dira.

*Bigarren Atala.*– Idazkaritzako titularra, Jaurlaritzako Batzordekide ez izan arren, gainontzeko ondorioetarako, Sailburutzat hartuko da, horiek duten estatutoaz.

**505**

DECRETO 28/1987, de 11 de Marzo, de creación de la Secretaría de la Presidencia del Gobierno.

La ejecución de las funciones que asigna al Lehendakari la Ley 7/1981, de 30 de Junio, de Gobierno, y el marcado carácter propio que tiene el Departamento de Presidencia, Justicia y Desarrollo Autonómico, como Organo de la Administración que realiza funciones propias y no vicarias de apoyo al Lehendakari, así como la existencia de diversas Secretarías específicas para la coordinación de planes y programas de carácter interdepartamental, hacen razonable la creación de un órgano que integre bajo su superior dirección todos los órganos dependientes de la Presidencia del Gobierno, sin merma de las facultades que, como tales, corresponden a los titulares de los Departamentos y a los Altos Cargos de la Administración.

Por todo ello, en virtud de las facultades que me atribuye la Ley 7/1981, de 30 de Junio, de Gobierno,

DISPONGO

*Artículo 1.*– 1. Se crea la Secretaría de la Presidencia del Gobierno, como órgano de apoyo del Lehendakari y bajo su dependencia directa.

2. Todos los órganos de apoyo a la Presidencia del Gobierno dependerán orgánica y funcionalmente de la Secretaría.

*Artículo 2.*– El titular de la Secretaría, sin ser miembro del Consejo de Gobierno, tendrá a los demás efectos el estatuto y consideración de Consejero.

*Hirugarren Atala.*– Jaurlaritzaren Lehendakaritzaren Idazkaritzak, politika eta teknika-gaietan Lehendakariaren ihardutze-sail aholkulari denez, honako egiteko hauek izango ditu:

a) Lehendakariari politika eta teknika-gaietan behar ainako argipideak ematea, Sailburuek berenez dituzten egitekoen kaltetan gabe.

b) Eskatu dakizkion gaietan, aholkuak ematea.

c) Lehendakariak eskatu diezaion ezein argipide-txosten, azterlan edo ihardun egitea.

d) Jaurlaritzako Sailen ekintzak eta ihardupide egitasmoak zeintzuk diren jakitea, Lehendakariaren gobernu-lanaren koordinaketa errazteko xedez.

*Laugarren Atala.*– Beti ere, honako hauek izango dira Jaurlaritzaren Lehendakaritzako Idazkaritzaren menpeko:

a) Lehendakariaren Lantaldea.

b) Jaurlaritzaren Albiste-Idazgua.

c) Gizarte-Azterlanerako Lantaldea.

d) Jaurlaritzako Bozeramalearen Idazgua.

e) Lehendakaritzako Teknika Idazkaritza Nagusia.

f) Lehendakariaren aginduetara dauden Idazkaritzak, eta batez ere:

– Mundu Mailako II. Euskal Kongresuaren Idazkaritza.

– Hizkuntza Politikarako Idazkaritza.

– Drogozalekerien aurkako Borrokarako Lehendakariaren Idazgua.

g) Diruegitamu Idazgua.

*Bosgarren Atala.*– Jaurlaritzaren Lehendakaritzako Idazkaritzako titularrari, honako hau dagokio:

a) Horren menpeko organuen zuzenketa eta koordinaketa.

b) Lehendakaritzako Diruegitamuaren eta horren Administrazio Orokorraren Aintzin-Egitasmoa gertatzea.

c) Arduralaritzaren erakuntzan eta eraentzan, baita zerbitzuen artezkaritzan eta ikuskaritzan ere, Sailburu batek dituen ahalmenez baliatzea, eta hori, bere menpeko zerbitzuei dagozkionetan; Idazkaritzaren egitura organikorako proposamena egitea; bere dituen diruak erabiltzea, beste organu batzuen horrekiko ahalmenaren kaltetan gabe; eta zigortze-ahalmena izatea Legeetan aurrikusitako moduan.

d) Legeek eta Araudiek eskuratzen dizkiotenak.

*Seigarren Atala.*– Jaurlaritzaren Lehendakaritzako Idazkaria, Lehendakariak izendatu eta kenduko du bere kabuz.

AZKEN ERABAKIA.

Dekreto hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunean sartuko da indarrean.

Gasteizen, 1987.eko Martxoak 11.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

*Artículo 3.*– Corresponde a la Secretaría de la Presidencia del Gobierno, como órgano de asesoría política y técnica del Lehendakari, las siguientes funciones:

a) Facilitar al Lehendakari la información política y técnica que le sea precisa, sin merma de las funciones que corresponden a los Consejeros como titulares de los Departamentos.

b) Asesorar en las materias en las que se le requiera.

c) Realizar cualquier informe, estudio o gestión que le sea encomendada por el Lehendakari.

d) Conocer las actividades y planes de actuación de los distintos Departamentos del Gobierno, al objeto de facilitar la coordinación de la acción gubernamental por parte del Lehendakari.

*Artículo 4.*– Dependen, en todo caso, de la Secretaría de la Presidencia del Gobierno:

a) El Gabinete del Lehendakari.

b) La Oficina de Prensa del Gobierno.

c) El Gabinete de Prospección Sociológica.

d) La Oficina del Portavoz del Gobierno.

e) La Secretaría General Técnica de la Presidencia.

f) Las distintas Secretarías dependientes del Lehendakari, y en especial:

– La Secretaría del II Congreso Mundial Vasco.

– La Secretaría de Política Lingüística.

– La Oficina del Lehendakari para la Lucha contra las Drogodependencias.

g) La Oficina Presupuestaria.

*Artículo 5.*– Corresponde al titular de la Secretaría de la Presidencia del Gobierno:

a) Dirigir y coordinar los órganos dependientes de la misma.

b) La elaboración del Anteproyecto del Presupuesto de la Presidencia y de la Administración General del mismo.

c) Ejercer, en relación a los servicios de él dependientes, las mismas facultades que un Consejero en materia de organización y gestión administrativa, dirección e inspección de servicios, proponer la estructura orgánica de la Secretaría, disponer de los gastos propios de ésta sin perjuicio de la capacidad reconocida a otros órganos, y ejercer la potestad sancionadora en los términos previstos en las Leyes.

d) Las que le atribuyan las Leyes y los Reglamentos.

*Artículo 6.*– El Secretario de la Presidencia del Gobierno será nombrado y cesado libremente por el Lehendakari.

DISPOSICION FINAL.

El presente Decreto entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 11 de Marzo de 1987.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.